

# noaua

**Joseba Larratxe:**  
**“Oso feminista geratu  
zaigu Joana Maiz  
komiki liburua”**

**Artze anaien txalaparta  
grabazioak disko batean  
batu dituzte**



## **Errauste-planta, kea dariola**



Noruegako Fiordoak  
(kruzeroa)

BIDAIAK TALDEAN

**DENBORALDI AURRERAPENA**

Eslovenia & Istria

**NOAOA**  
BIDAIAK

LASARTE ORIAIK, NOAOAK GIDATUA

943 37 36 13 info@noaoa.eus noaoa.eus

*gabonetako apaingarri eta dekorazioan aukera zabala!*

**URTINEA**

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

BIZI DANTZA  
PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

**USURBILEN**  
abenduak 1  
kiroldegian 11:30

**SARRERAK AGORTUTAK**

**NOAOA**

Usurbil

**Auto Guria s.l.**

Auto Guria  
Mobil Service

**Auto Konponketa**  
**Pre I.T.V.**  
**Marka guztiak**

**943 363 298**

Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

## Albiste iruditan

# Sarrietan eskuzabal, XXI. Erle Eguna

Erle Lagunak taldeak azaroaren 24an antolaturiko jaialdian ezti ekoizleen lana saritu eta omentzeko tartea hartu zuten. Ezti txapelketak, gozogintzako eta haurren marrazketa lehiaketak ospatu ziren. Hemen sarituen zerrenda:

### Gozogintza lehiaketa

- 1-Eva Ugartemendia.
- 2-Patxi Franco.

### Ezti txapelketak

#### Lore iluna:

- 1-Benat Elortza Zeberio (Zerain).
- 2-Martin Mugika Zufiria (Legazpi).

#### Lore argia:

- 1-Juan Galdeano Izagirre (Hernani).
- 2-Asier Martin Pagaldai (Bergara).

#### Mila lore:

- 1-Juan Galdeano Izagirre (Hernani).
- 2-Igor Altuna Maiz (Lazkao).



Argazkian, ezti txapelketako lehiaketetako irabazleak.

### Haurren Marrazki Txapelketa

- HH3: Aiuri (Aginagako Eskolako ikaslea).  
 HH4: Ane Landa (Aginagako Eskolako ikaslea).  
 HH5: Nahia Gonzalez.  
 LH1: Ani Zubiria.

- LH2: Jon Pallero Molina.  
 LH3: Peru Arruti.  
 LH4: Benat Zuloaga.  
 LH5: Lilien Li.  
 LH6: Arane Agirre.  
 DBH1: Sara Arbeloa.

## Laburrean

### Makillatze ikastaroa Santuenea Auzo Elkarte

Abenduaren 7an larunbata, arratsaldeko 17:00etan auzo elkarteko egoitzan, gazte eta helduentzat. Interesdunek azaroaren 30a baino lehen eman behar dute izena 670 027 731 telefono zenbakian.

### Zinea eta palomitak Bihurri ludotekan

6 urtera arteko haurrentzat antolatu du saioa Bihurri ludotekak. Azaroaren 29an ostirala, film bat ikusi eta palomitak jateko aukera aparta izango dute. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera, ludotekan bertan.

### Abenduaren 8an, Usurbilgo odol emaileen bazkaria

Bazkaritarako bilduko dira Atxega Jauregian. Bertaratu nahi duenak izena eman dezala aurrez, telefono zenbakiotako batera deituta: 619 125 644 (Mari Jose), 943 363 102 (Agustina), 943 370 723 (Maite).

# noqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
 943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus  
 Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

#### Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

#### Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Disinu berria: Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,  
 Itxaso Orbegozo.

Publizitatea: Beatriz Alda,  
 publizitatea@noaua.eus

#### Banaketa:

Inaki Irazusta,

Iban Maritxalar.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

#### Inprimategia:

Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

#### Harremanetarako:

erredakzioa@noaua.eus



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



# Gipuzkoako Foru Aldundia





Imanol Ubeda

## Atal berriak begibistan

**T**okikom euskarazko 66 herri komunikabidek osatutako sarea da. Gehienak 1980ko hamarkadaren bukaera aldera sortu ziren, tokiko euskara elkarten loraldiaren testuinguruan, euskara zabaldu eta normalizatzeko tresna gisa. NOAUA! aldizkaria zein web orrialdea Tokikom sarearen parte dira.

### Plazan Bazan

Tokikom zerbitsu asko eskaintzen ditu. Tartean, *Plazan bazan* izenekoa. Hurrei zuzenduriko web orrialde honen bere isla du Tokikomeko paperezko hainbat hedabideetan. Abendutik aurrera, NOAUA! ere *Plazan bazan* ekimenaren ispilu izango da.

Euskal komunikabideen etorkizuna bermatu nahi ba-

dugu, funtsezkoa da gaur egun-  
gu umeez haien berri izatea, haietan parte hartzeko eta protagonista izateko aukerak ematea. Komunikabideok beraienak ere badirela sentiaraztea. Horretarako, eta bide batez, gure haurren izpiritu kritiko eta parte hartzailea elikatzeke abiatu zen *Plazan bazan*.

Umeei eskaintako atal hau hilabeteen behin plazaratuko dugu NOAUA!n: jolasak, errezetak, eskulanak... Lehen aletxoa laster batean ikusiko duzue orriotan.

### Hamalau? Gerturatu eta lau!

Ez da NOAUA!ren baitan sumatuko duzuen aldaketa bakarra izango. Urtea amaitu aurretik atal berri gehiago ipiniko ditugu martxan. Aste honetan bertan, lehenaz goza-

tzeko aukera duzue. *Hamalau? Gerturatu eta lau!* izeneko atal berrian, lau lagun arituko dira iritzi-emaile lanetan. Modu errotatiboan jardungo dute eta paperean (NOAUA! astekarian) ez ezik, sarean ere (noaua.eus web orrialdeko *Komunitatea* atalean) emango dugu argitara.

Lehen errondarako, lau sinadura hauek batu ditugu: Ainhoa Azpirotz, Idoia Torregerai, Ugaitz Agirre eta Alazne Arruti. Zerbaki honen 17. orrialdera jo eta hortxe topatuko duzue Alazneren iruzkina.

### Horoskopoa

Garai aldrebes hauei aurre egiteko, umorea bidelagun garrantzitsua izango ahal da. Paperezko hedabideetan ohikoa den atal bat ekarriko dugu gurera: Horoskopoa! Barretartiak egina,

abenduan plazaratuko dugu lehen. Ainara Azpiazu Axpiz marrazkilariak ilustratu ditu horoskopoko zeinuak.

### Ilustrazioak

Axpiz gain, beste marrazkilari bat ere fitxatu dugu. Joseba Larratxek ilustratu du Euskalraldiaren inguruan plazaratu berri dugun gehigarriko azala. Aurrerantzean, NOAUA!ko gehigarri berezietako portadek ere, Joseba Larratxeren ukitua izango dute.

Egitasmo berriak ez dira aldizkarira mugatuko. Ikus-entzunezko lanen bitartez, bultzada bat eman nahi dugu noaua.eus web orrialdeari. Aparteko argitalpenik ere izango da urtea amaitu aurretik. Laster jasoko duzue berri gehiago.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Itxaso Orbegozo | **Imanol Ubeda** | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo

## Gripearen aurkako txertoa, urtea amaitu arte

**H**asiera batean azaroaren 23ra arte iragarri bazuten ere abenduaren 31ra arte luzatu du Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak gripearen aurkako txertoa hartzeko kanpaina.

Jada 311.766 pertsona txertatu dira, %80ak 65 urtetik gora

zituena. Haiei, haurdun egongo gaixotasun kronikoak dituztenei nahiz osasungintzako profesionalen zuzendua dago bereziki kanpaina.

Informazio gehiago anbulatortioan jasoko duzue.

### Odol emaileen eguna

Abenduaren 8an ospatuko

dute urtero moduan Usurbilgo odol emaileek, haien egun handia. Bazkaritarako bilduko dira Atxega Jauregian. Bertaratu nahi duenak izena eman dezala aurretik, hiru telefono zerbaki hauetako batera deituz:

619 125 644 (Mari Jose).

943 363 102 (Agustina).

943 370 723 (Maite).

### Jostailu Erabilien

#### azokarako bilketa

Hitz Ahok abenduaren 14rako iragarri du Jostailu Erabilien Azoka. Bilketa hilaren 12an eta 13an egingo dute, 17:00-19:00 artean Sutegiko erakustaretoan. Erabiltzen ez ditugun joko eta jolasak prestatzen hasteko garaia dugu beraz.

### Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

# Indarkeria matxistaren aurka

**Z**uen biolentziari guk autodefentsa feminista!" aldarripean, Kafe Tertulia feminista taldeko kideek deituta Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatze Egune-ko elkarretaratzean bildu ziren herritarrak hilaren 25ean Mikel Laboa plazan. Indarkeria matxista "gizartearen gaitz bat da, eta haren jatorria gizonezkoen eta emakumezkoen artean islatzen den desberdintasun eta botere harremanetan dago", nabarmendu zuten.

Erahilketa eta sexu erasoeri aurre egiteko oinarririk lan egin behar dela gogoratu zuten, eta alde horretatik egunerokoan pairatu behar izaten dituzten mikro matxismoei erantzun eta konpontzea ezinbestekotzat jo zuten. "Zapalkuntzei aurre egiteko tres-



**Autodefentsaz hausnartzen aritu ziren belaunaldi ezberdinetako emakumeak elkarretaratzearen aurretik plazan egin zuten solasaldian.**

nak mahai gainean jarri nahi ditugu eta prest gaude edozein erasoren aurrean erantzun bat emateko", adierazi zuten.

Mobilizazioa, Kafe Tertulian bideratzen ari diren ahalduntze eta saretze lana plazaratzeko ere baliatu zuten. Neska\* gazte oro gonbidatu zuten Potxoenean ostiral iluntzetan egiten duten tertulian parte hartzera, "guztion artean indarrak batzeko".

Autodefentsaz hausnartzen

aritu ziren belaunaldi ezberdinetako emakumeak elkarretaratzearen aurretik plazan egin zuten solasaldian.

## Erakunde adierazpena

Borroka feministaren alde hartua duen konpromisoa berresten duen erakunde adierazpena bozkatu eta onartuko du Usurbilgo Udalak ostegunerako (azaroak 28) 18:00etan deitua duen udalbatzaren osoko bilkuran.

# Bilgune feminista osatu dute Udarregin

"Hezkuntza patriarkalari guk autodefentsa feminista" aldarripean, DBH-ko neska gazte talde batek bilgune feminista osatu zutela iragarri eta aurkeztu zuen ikastola barruan egindako agerraldi bidez. "Udarregiko neskak atek ireki ditugu behingoz. Iritsi da gure ordua!", aldarrikatu zuten. Erahilketa matxisten aurrean "ez dugu bat gehiago onartuko" zioten, ezta ikastolan bertan ere. "Udarregi mailan eraso matxistarik zein sexistarik ez dela onartuko jakinarazi nahi dizuegu. Lana eta lanketa dugu aurretik. Ekin lanari, gora Udarregi feminista!".

## "Menstruazioa bai!"

Beldur Barik bideo lehiaketan Usurbilgo Gaztelekuko taldeak landutako "Menstruazioa bai!" ikus-entzunezkoa saritu dute. Menstruazioarekiko lotsa eta tabua salatu, informatu, espe-



**DBH-ko neska gazte talde batek bilgune feminista bat osatu du.**

rirentziak partekatu eta ahalduentzeko tresna gisa aurkeztu digu gaia, 400 euroko ordain-saria jaso duen talde honek: Manex Bengoetxea, Irati Ize-ta, Anuk Harreguy, Kimetz Arriaga, Lorea Dominguez, Lur Echevarria, Enaitz Garcia, Sara Gomez, Zaira Iglesias, Nikole Iribar, Maddi Manterola, Ane Miranda, Aritz Rueda, Ibai Salegi, Peru Iraeta, Maddi Zaldua, Maria Davila, Enara Larrañaga, Unax Jauregi, Jon Galarraga, Lucia Rodriguez, Iker Niño, Laia Zuloaga, Mikel

Zabaleta, Kattalin Armendariz, Aitor Alustiza, Oihane Carro, Aiora Arrillaga, Hodei Belaus-tegi, Egoitz Pagola, Joritz Illarramendi, Unax Urkia, Saioa Guerra, Laia Calvo. Zorionak!

## Jai erduei buruzko hausnarketa

Herrian antolatzen diren ekitaldietan ikuspegi feminista txertatzeaz jardungo dute abenduaren 2an, 18:00etan Potxoenean. Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak antolatuko du hitzaldia.

## Xingola more erraldoia Oriarten

Usurbil eta Lasarteko institutuko ikasleen asanbladak xingola more erraldoia erai-ki zuen. Ikasgeletan hainbat jarduera egitekoak ziren baita; genero indarkeriaren piramidearen azterketak, jarrera matxisten salaketa, autodefentsa feminista tailerra... "Feminismoa: izena eta izana" ere hitzaldia programatu zuten hilaren 27rako.



**Ikasleen asanbladak xingola more bat irudikatu zuen.**

## Ixa handi bat emakumeen eskubide urraketeki

Ixa handi bat marraztu zieten Zubietako Eskolako ikasleek, guraso, ikasle eta irakasleek idatziz aurrez eskolan jarria izan zuten puntu morean jaso zituzten emakumeen eskubideen urraketeki. Kantu Koloreen "Nire gorputza da" abestia kantatuz eta dantzatuz amaitu zuten azaroaren 25eko klase eguna.



**Nire gorputza da abestuz amaitu zuten asteleheneko klase eguna.**

## Erasorik gabeko Gazte Egunaren alde

Aztarrikaren larunbateko jaialdian besoko moredun bolondres talde bat egongo da parranda orduetan. Erasorik gertatuko balitz, besoko moredunengana jotzeko aukera izango da. Bestalde, Usurbilgo jaietan egin bezala, erasoaren markagailua jarriko dute.

# Xua gurasoekin etxeratzeko bere esku dagoena egiteko prestasuna adierazi du Arartekoak

**X**ua Gurasoekin Etxera herri ekimeneko kideak Ararteko Manu Lezertuarekin eta Justizia eta Espetxeratuaren arloko arduradun Roberto Morenorekin bildu ziren azaroaren 21ean Donostian.

“Xuaren amonarekin batera, laster Picassenteko espetxean dauden bere gurasoengandik banatua izan ez dadin egiten ari diren ahaleginak azaldu dizkiete. Arartekoak arreta handiz entzun ditu azalpenak eta, horrelako aferetan berezko eskuduntzarik ez izan arren, bere esku dagoen guztia egingo duela agindu die. Gizatasunagatik eta umearen hobebeharra lehenetsita, erabakiak hartzea dagozkien erakunde eta instituzioetara zuzentzeko prestutasuna agertu du”, aipatu herri bilgunetik aditzera eman dutenez.

## Atxikimenduak

**Manifestuak 1.600**

**atxikimendu jaso ditu**

Xuarekin bere guraso Olatz Lasagabaster eta Patxi Urangaren etxeratzea eskatzeko manifestua kaleratua du aipatu herri



Manu Lezertuarekin batu ziren azaroaren 21ean Donostian.

### XUA GURASOekin ETXERA

**“Erabakiak hartzea dagozkien erakundeetara zuzentzeko prestasuna agertu zuen Arartekoak”**

ekimenak. Aste hasierarako 1.599 atxikimendu bilduak ziztuzten. Zuen sinadura change.org atarian sartu eta bilatzaillean “Xua Gurasoekin Etxera” idatzita agertuko zaizuen orrialdean eman dezakezue.

### Batzar Nagusietara

Herritar, eragile eta erakundeen babesa jasotzen ari da Xua Gurasoekin Etxera herri ekimena. Urria amaieran onartu zuten mozio banaren bidez Orioko eta Usurbilgo Udalena. Arartekora soilik ez, erakunde gehiagotara jotzeko asmotan dira; bai Gipuzkoako Batzar Nagusietara, baita Gasteizko Legebiltzarrerara ere.

### Mobilizazio gehiago

Orain arte bezala, hilero azken ostiraletan 20:00etan Mikel La-

boa plazan mobilizatzen segiko dute, Xua gurasoekin etxera ekarri arte. Datorren hitzordua hilaren 29an. Mobilizazio bereziak ere izango dira hurrengo asteotan.

### Material salmenta

Kamisetak, sudaderak edota ixa handidun pegatinak saltzeko nahiz manifestua sinatzeko postua jarri du Xua Gurasoekin Etxera herri ekimenak hilabeteotan eta hurrengo asteotan ere gauza bera egingo dute, kalean ekitaldiak diren egunetan.

## Usurbildik Oriora



Gure web orrialdean topatuko dituzue martxaren inguruko irudi gehiago.

Eskuz esku ibili zuten ixa handi batek lotu zituen larunbat goizean Usurbil eta Orio; Xua Gurasoekin Etxera herri ekimenak antolatutako martxak hain zuzen. Xuaren guraso

Olatz Lasagabasterrek eta Patxi Urangak sorleku eta bizileku dituzten aipatu bi herriek Valentziako Picassenten espetxeratua duten familiaren etxeratzea exijitu zuten.

## Sare taldea Erle Egunean



Larriki gaixo diren presoak etxeratzea eskatu zuten pasa den igandean.

Larriki gaixo dauden 21 euskal presoaren eskubideen eta haien etxeratzearen aldeko ekimen astea egin da Buruntzaldean. Sentsibilizazio kanpaina irudikatutako duen anbulantzia Mikel

Laboa plazara heldu zen Erle Egunez. Usurbilgo Sare taldeko kideak, errealitate gordin honen berri ematen zuten eskuorriak banatzen aritu zitzaizkien azoka gozora hurbildu zirenei.

# Erraustegia ostegunean piztuko dute, probaldi fasean

Laster egunerokoan bilakatuko zaigun irudia duzue ondokoa. Kea dariola zegoen Zubietako erraustetaren zero gunea joan den asteburuan. Hilaren 22an Foru Aldundiko ordezkariak azpiegiturara eginiko bisita gidatuan hedabideei iragarri zenez, ostegun honetan bertan, azaroaren 28an jartzekoa dute martxan erraustegia probaldi fasean eta martxorako ehuneko ehunean funtzionamenduan izatea espero dute. Egun berean jarri omen zituzten berotzen, laster batean lehengaiak erretzen hasi daitezkeen labeak.

Iragarpen hau egin eta bihar ramunean hiru ke zutabe ikus zitezkeen herritik; bat azken asteotan begi bistan izan duguna, Tratamendu Mekaniko Biologikoko plantako tximiniatik irteten zena. Beste biak berriak, erraustegiaren kokagunetik isurtzen ari zirenak, haietako bat errauskailuko tximiniatik. Aldizkari hau eskuarteaz duzunerako martxan egon daiteke erraustegia probaldi fasean.

## “Zero puntua markatu nahiz genuen”

Erraustegiarekin bizi dugun unea aintzakotzat hartuta, orain inoiz baino ulergarriagoa zaigu Zubietan Lantzenek Holandako Toxicowatch fundazioarekin elkarlanean abian jarritako erraustegiko kutsagaien ikerlana Zubietan gaineko planta piztu aurretik abiatzeko zuten garrantzia. “Zero puntua markatu behar genuen”, erraustegia martxan jarri aurretik azterlana egin, gerora, piztu ostean biltzen diren datuekin alderatzen joateko. Oso leku gutxitan egin da halako saiakera. Hala zioten gai honi buruz, Errausketaren Aurkako



Azaroaren 28an jartzekoa dute martxan erraustegia probaldi fasean eta martxorako ehuneko ehunean funtzionamenduan izatea espero dute.

## ERRAUSKETAREN AURKAKO MUGIMENDUA

**“Erraustegia probaldi fasean jarrita, “garai berri bat irekiko zaigu” zioten hitzaldian. Baina “ez da hemen amaitzen erraustegiaren aurkako borroka. Gure kontrolak egiten segiko dugu”**

Mugimenduak antolatu eta Zubietan Lantzeneko kideek hitza hartu zuten solasaldian. Azaroaren 20an egin zen Donostiako Alde Zaharreko udal liburategiko kriptan. Erraustegiko kutsagaiak neurtzen hasteko bi ikerketa lerro landu dira errausketaren zero gunetik hurbil dauden herrietan; oilategietan laginak hartu dira, eta Usurbil, Lasarte zein Andoaingo ama talde batek bularreko esnea eman du baita aztertua izan dadin.

## “Kutsatzaile asko ez dituzte kontrolatuko”

Herri ekimenez abiatu zen proiektua, administrazio publikoak “kutsatzaile asko ez dituela kontrolatuko” ikusita. “Erabat partziala” izango da erraustegiaren sustatzaileek egingo duten kutsagaien neurketa Zubietan Lantzenen esane-

tan, etengabeko neurketak egingo teknika egon badauden arren, noizbehinkako neurketak baino ez dituztelako egingo. Hori tximiniatik aieratuko diren kutsagaiak dagokienez. Bestetik, arnasten dugun aireari dagokionez, aire kalitatea neurtzeko kabinak baditugu Usurbilen eta Zubietan. Baina hitzaldian aipatu zenez, kutsagai kopuru oso altua beharko litzateke, kabinok detektatu ahal izateko, aieratzen diren kutsagaiak berehala sakabanutuko baitira. Baina aireaz gain lurrari erreparatu beharko diogula ohartarazten du Zubietan Lantzenek. Erraustegitik irten dako kutsagaiak, denetarik

elikagaiak ematen dizkigun “lurrean finkatu eta metatzen dira”. Horregatik bildu zituzten laginak irailean oilategietako arrautz, eta inguruko lurretatik.

## Errausturiko lehengaiak, betirako galduak

Erraustegia sustatu dutenen helburu nagusia ekarri zuten gogora, “helburua ez zen ingurumena eta osasuna babestea, helburua inork ez ikustea zen”. Eta eragina bistan denez, tximiniak isuriko duen ke zutabetik haratago doa. Lurra aipatu dugu, baina lurra eman dako lurrari itzuli beharrean erraustegiak alferrik xahutuko duela gogorarazten du Zubietan Lantzenek. “Zakarrak, berrehabili daitezkeen lehengaiak dira. Erraustegian sartuko den materiala betirako galduko da, kaltea horretarainokoa da”.

Erraustegia probaldi fasean eta gerora guztiz martxan jarrita, “fase berri bat irekiko zaigu” zioten hitzaldian. Baina ohartarazi dutenez, “ez da hemen amaitzen erraustegiaren aurkako borroka”. Iragarri zutenenez, “gaiaren gainean egongo gara, gure kontrolak egiten segiko dugu”.



Azaroaren 20an Donostian eskaini zuten hitzaldian azaldu zutenenez, erraustegiko kutsagaiak neurtzen hasteko bi ikerketa lerro landu dira errausketaren zero gunetik hurbil dauden herrietan. Oilategietan laginak hartu dira, eta Usurbil, Lasarte zein Andoaingo ama talde batek bularreko esnea eman du baita, aztertua izan dadin.



# 2020ko Euskaraldira begirako Euskararen Eguna ospatuko da aurten

## Azaroak 29, ostirala

■ 19:30 Ekainean ospatu zen Maskarada Eguneko irudien proiektzioa Sutegiko auditorioan. Orbeldi Dantza Taldearen edota Mikel Alkorta trikitalariaren parte hartzea. Sarrera: doan.

Antolatzaileak: Euskaraldia taldea eta Xiberoko lagunak.

## Azaroak 30, larunbata

■ 12:00etatik aurrera Usurbilgo frontoian egun osoz, euskaltzaleen sarean NOUA! bidetz jaso dituzuen bizipen eta desioak zintzilikatzeko aukera. Zuen ekarpenak egunotan utzi ditzakezue udaletxean, Potxoenean, liburutegian, Kiroldegian...

Antolatzailea: Euskaraldiko taldea.

■ 12:30 Kantu-jira Mikel Laboa plazatik abiatuta. Desio eta bizipenen sarea hornitzeko herriko gune desberdinetan jarritako kaxak biltzera abituko dira kantuan.

Antolatzailea: Usurbilgo Euskal Kantu Taldea.

■ 18:00 Demode Quartet taldearen klasiko euskaldunen bertsioetan oinarrituriko "Epa txiki" haurrentzako ikuskizuna Aginagako Eliza Zaharrean.

Sarrera: doan.

Antolatzaileak: Euskaraldiko taldea eta Antxomolantxa Elkarteak.

■ 19:30 Usurbil ardatz hartuta, herriko artixten "Usurbildarrak daukate" emanaldia Askatasuna plazan.



Ekainean ospatu zen Maskarada Eguneko irudien proiektzioa egingo dute ostiral honetan Sutegin. Argazkia: Ibai Arrieta.

### LARUNBAT HONETAN

**"Euskaraldiko bizipenak eta desioak zintzilikatu ahal izango dituzue frontoian"**

Antolatzaileak: Herriko artixta eta Euskaraldiko taldea.

### Abenduak 1, igandea

■ Egunean zehar, Mikel Laboa gogoan hil zenetik 11 urte bete teko baitira. Bere musika entzungai izango da bere izena daraman plazan.

■ 11:30 Pirritx, Porrotx eta Marimototsen "Bizi dantzan" ikuskizun berria Oiardo Kiroldegian (11:00etan ateen irekiera). Sarrerak: AGORTUAK!

Antolatzaileak: NOUA! Kultur Elkarte eta Euskaraldiko taldea.

■ 17:00 Haurrentzako zinea euskaraz Sutegin: "Maya erlea, ezti jokoak".

Sarrera: 3 euro, egunean bertan. Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta Ziortza Gazte Elkarteak.

■ 18:00 "Zoaz bake santuan" antzezlan Aginagako Eliza Zaharrean.

Sarrerak: 5 eurotan alde zurreretik Arrate tabernan. Egunean bertan ere salgai izango dira.

Antolatzaileak: Aginagako San Praixku Guraso Elkarte eta Euskaraldiko taldea.

### Abenduak 3, asteartea

Euskararen Eguna Aginagako eta Zubietako Eskoletan eta Udarregi Ikastolan.

■ Aginagako eskola: "Ikasleek, gurasoek eta irakasleek, beraientzat euskarazko hitz politena dena aukeratu eta denon artean hormairudia sortuko dugu. Euskarako abestiekin jolasak egingo ditugu".

■ Udarregi Ikastola: -9:30-11:00 Eguraldiak lagun-

tzen badu, LH-koen kalejira buruhandiek.

-12:10-12:30 LH-koen kantu saioa; eguraldiaren arabera, Mikel Laboa plazan edo frontoian.

-Egunean zehar, HH, LH eta DBH-ko ikasleen hamaika ekintza ikastola barruan.

Oharra: behin behineko egitaraua, aldaketak egon daitezke. Antolatzailea: ikastetxeak.

### Abenduak 4, asteazkena

■ 19:00 Hitzaldia Potxoenean: "Euskararen Jai Hotsa".

Hizlaria: Josu Urrejola.

Zehaztasunak: "Euskararen jatorria, euskararen jaiotza eta adina, zer da izena eta izana, arnasaren eragina euskararen, euskararen antzekotasak (onomatopeiak), euskararen hitzerroak, euskara ez idatzia, generoa euskararen, aditzak euskararen, bertsolaritza, abestiak eta dantza euskararen".

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza Orokorra

693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue  
Igeltseritza

606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak

649 43 54 75  
943 36 72 64  
IT-ak egiten dira  
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

**Iñaki Iturgintza**


BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK  
Info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com  
600 024 825



# GIPUZKOA

## Etorkizuna orain

Gipuzkoa etorkizuna da.  
Iritsi den etorkizuna.



GIPUZKOA  
ETORKIZUNA  
ORAIN



Web orrialdean argazki gehiago topatuko dituzue, [noaia.eus/galeriak/](http://noaia.eus/galeriak/) atalean. Argazkiak: Ion Markel Saez de Urabain.



# Musikariak ospakizun betean



Azaroaren 22ko Santa Zezili edo musikarien egunez jai izan zuten Zumartekoek. Bezperan murgildu ziren ospakizunetan, urtero legez herrian barrena instrumentu talde ezberdinekin dantza batean egin zuten kalejirarekin. Sutegin musika eskolako ahots eta musikariak bildu zituzten; talde instrumental ezberdinak eta belaunaldi ezberdinetako abesbatzak. Irudi gehiago, [noaia.eus](http://noaia.eus) atarian.

## Usurbildarren hitzorduak Durangoko Azokan

### Abenduak 5, osteguna

■ 11:30-12:00 Ahotsenea Solasaldiak: Yolanda Arrietaren “Atâria” zientzia-fikziozko eleberria.

■ 16:20-17:00 Ahotsenea Zuzenekoak: Oreka Tx taldea, “Zabulutaka”.

■ 17:00-17:40 Ahotsenea Zuzenekoak: Iñorkiñak herriko taldea.

### Abenduak 6, ostirala

■ 13:00-13:30 Ahotsenea Solasaldiak: “Berri Txarrak, Harkaitz Cano, Ibai Arrieta eta Eider Iturriaga. Berba eta irudia”. Agurtu berri dugun taldearen urte honetako bira iruditan jaso du Ibai Arrietak.

■ 18:30-19:00 Areto Nagusian: Jakoba Errekondok 25 urtez landareei buruz idatzitako 1.111 artikuluetatik pertsona ezagunek eginiko hautaketa bildumaren, “111 hostoz eta orriz jantzi” argitalpenaren aurkezpena. Antolatzailerak: Argia.

### Abenduak 7, larunbata

■ 11:00-11:30 Areto Nagu-



Yolanda Arrietak Atâria zientzia fikziozko eleberria aurkeztuko du abenduaren 5ean Ahotsenean.

### ABENDUAREN 5ETIK 8RA

#### Ahotsenea gunean edota Areto Nagusian aurkeztuko dituzte euren lan berrienak

sian: Joan Mari Torrealdairen “De la hoguera al lápiz rojo. La Censura franquista en el País Vasco” liburuaren aurkezpena. Antolatzailerak: Txertoa. Partaideak: Joan Mari Torrealdai eta Martin Anso. “Garai frankistan eta euskarazko liburuek jasandako zentsuran

oinarritutako liburua aurkeztuko digu Joan Mari Torrealdaik”.

■ 14:00-14:30 Ahotsenea Solasaldiak: Jakoba Errekondo eta Antton Olariaga. “Landareak lantzen 2020”. “Hemen duzu urte osoan egin beharreko lanen egutegia, sasoi bakoitzari, hilabete bakoitzari eta ilargialdiari lotuta. Lan bakoitza noiz eta nola egiten dugun jasotzeko aukera ematen du gida honek. Aurtengo gaia: zuhaitzak”.

■ 16:30-17:00 Areto Nagusian:

“2020ko ilargiaren egutegia”. Partaideak: Pello Zabala eta Jakoba Errekondo. Antolatzailerak: Argia. “2020ko ilargiaren egutegiaren aurkezpena eta ilargiaren eraginaren azalpena. Pello Zabalak eta Jakoba Errekondok aurreko kontsultategia jorratuko dute ikusleen galderak eta zalantzak argituz”.

■ 17:00-17:30 Ahotsenea Solasaldiak: Yurre Ugarteren eta Joseba Larratxeren “Joana Maiz” komikiaren/nobela grafikoaren aurkezpena.



# Joseba Larratxe: “Marrazteak denbora pilo bat eskatzen du. Maratoi bat izan da”

Azaroaren 6an Joana Maiz (Harriet) nobela grafikoa aurkeztu zuten Kabiienen. Joseba Larratxe marrazkilariak Yurre Ugarte idazlearen gidoia izan du abiapuntu. Liburuaren sinopsiak dioten bezala, erresistentzia da eleberrri grafikoaren gako nagusia. Komikiari eta marrazkilari buruzko azalpen ugari eskaini dizkigu Larratxek. Kabiienen bertan izaniko solasaldia orriotan laburbildu dugu.

**NOAUA! Lau eskutara egiten diren lanetan, zailagoa izango da erabakiak hartzea. Hau kendu, hura erantsi, bestea luzatu, azken hori handitu... Nolakoa izan da hartuemana?**

**Joseba Larratxe.** Edozein bikote harremanean bezala, jakin behar da noiz insistitu zure iritzia alde eta noiz esan “ez zait hainbeste inporta eta hala nahi baduzu, hala izan dadila”. Dena den, esango nuke erabaki kreatibo gehienak formatuak berak behartu dituela. Ez hainbeste gure gustuek.

**Formatuaz ari zarela, aipatu**



Yurre Ugarte gidoiariarekin batera, Joana Maiz (Harriet, 2019) izeneko eleberrri grafikoa plazaratu berri du Joseba Larratxek.

## JOSEBA LARRATXE

**“Gidoia Yurre Ugarterena bada ere, ekarpenak egiteko tarteak izan ditut”**

**behar da Eusko Jaurlaritzaren beka bat jaso zenutela eta horri esker osatu duzuela Joana Maiz eleberrri grafikoa.**

Urtebeteko tarteak eman zizuten komikia marrazteko. Gurekin batera, beste hiru proiektu jaso zuten Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza. Gurearen

aldean, beste hiru egitasmoak oso garatuak zeuden ordurako. Parte handi bat marraztuta zuten. Gu zeretik hasi ginen eta urtebetean amaitu behar izan dugu. Luzapen bat eskatu behar izan genuen eta azken egunera arte aprobetxatu dugu. Zer sartu eta zer ez, geneukan denborak markatu du.

**Erroka handiena hortaz, epea errespetatzea izan da.**

Bai. Marrazteak berak denbora pilo bat eskatzen du. Maratoi bat da. Intentsiboa. Yurre Ugarte

tek bazituen ildo argumental gehiago, pertsonaia batzuk garatzeko trama gehiago, baina ez zigun denbora ematen. Bukaera aldean, zuzenago goaz.

**Erritmoa biziagoa da bai, amaieran.**

Bukaeran erritmoa azkartzen joateak ondo funtzionatu ohi du narratiboki. Baina kasu honetan, lanerako genuen denbora tartearekin du zerikusia. Epe jakin baterako bukatu behar genuen. Denbora tarte horretan ahal izan duguna egin dugu, ahalik eta ondoen. %100a eman dugu biok.

**Marrazkiek zein neurritan baldintzatu dute gidoia bera?**

Irudiek ere badute gidoitik, noski. Zirriborro bat egin genuen eta hori oinarri hartuta joan gara liburu osatzen. Etapaka osatu dugu. Working progress moduko bat izan da, egindakoak ondoren zetorren lanari eragiten ziolako.

Gidoia Yurre Ugarterena bada ere, ekarpenak egiteko tarteak izan ditut.

## Erresistentzia baten kronika grafikoa

**NOAUA! Bi pertsonaia nagusi ditu eleberrriak: Lauren –Laura Odriozola– eta Joana Maiz. Garai ezberdinetako bi emakume dira. Eta biak daude gatazka egoera baten erdian.**

**Joseba Larratxe.** Komikiaren sinopsiak dioten bezala, erresistentzia istorio bat da. Egoera ezberdina bizi duten bi emakume dira baina bata bestearen ifrentzu bilakatuko dira.

Lauren beti egon da erresis-

tentzian. Joana Maizi berriz, komikia hasten den momentura arte gauzak ondo antzean joan zaizkio. Une jakin batean ordea, erresistitu beharrean aurkitzen du bere burua eta Laurenengan topatuko du inspirazioa. Hori da istorioaren muina. Joana aldatzen joango da, Lauren eredu harturik. Dena den, komikia egitura dagoen bezala, bada hirugarren hanka bat ere. Kubi izeneko pertsonaia. Lauren

semea, amaren kontrapuntua da. Ahots kritikoa da, ia sabotatzailea. Hirurek dute bere mcguffin propioa.

**Zer da mcguffin-a?**

Pertsonaiaren helburua irudikatzen duen objektua. Joana Maizen mcguffina dokumentalaren gidoia da.

Kubirena, aitaren altxorra.

Laurenen mcguffina berriz, etxeko zuhaitza da. Hiru objektu horiekin, euren nahiak

oso ondo irudikatuta daude.

**Kalabaza da liburuan ageri den beste elementu sinboliko bat.**

Hiruren artean partekatzen duten objektua da, bai. Euskal imaginarioan badu bere pisua kalabazak, ezta? Ipuinekin lotura zuzena du: *hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Usurbilgo plazan*. Kalabaza mcguffin totala da. Definitiboa.

# “Nahi gabe, oso feminista atera zaigu komikia”

NOAUA! Nobelan landu dituzuen hainbat kontu oso lokalak dirudite, baina oso unibertsalak dira aldi berean. Ahalduntze baten kronika da hau.

**Joseba Larratxe.** Nahi gabe, horren bila joan gabe, oso feminista atera zaigu komikia. Eta feminismoa zer da, ez bada ahalduntzea.

**Ahalduntzeko ahalegina egiten duenak islatzen du zer nolako errealitatea bizi duen.**

Ahalduntzen zara norbaitek zapaltzen zaituelako. Daukaugu daukagun gizartea; kapitalista, matxista eta neoliberala. Norbanako txikiek eta bereziki emakumeek erresistentzia ari-keta bat egin behar dute ahalduntzeko. Hori da komikiaren muina.

**Une batean, Joana Maiz kexu azalduko da bere gurasoen aurrean. Bere amamen inguruan ez dakielako ezer.**

Mikel Laboaren *Langile baten galderak liburu baten aurrean* kantak ondo islatzen du aipatzen duzun kontua. Badakigu nortzuk ziren erregeak, kapitainak, generalak... Baina horien garaipean ez ziren garaipe izango, alboan izan zituzten pertsona anonimoak kontuan izango ez bagenu. Horrekin du lotura eta baita emakumeen historiarekin ere. Ezabatua izan den historia delako. Lauren bezaraz, Inorrez andere bat izan da, emakumea, kargurik gabea... Historiak bazterrean utzi duen pertsonaia.

**Esaten ari zaren hau irudi bidez adierazi duzu liburuan. Erdialdean gizonezkoen polaroidak ageri dira. Amaierako polaroid sortan, Joana III. Albretekoa, Laura Odriozola edota Maialen Lujanbio ageri dira.** Joana Maizen beste dokumentala irudikatuko duen germena da. Agusti Xaho ere hor dago, emakumezkoen ondoan. Asis-



Kabien aurkezpen bat egin zuten senideen eta lagunen aurrean.

## JOSEBA LARRATXE

**“Agian oso erromantikoa naiz, baina zuribeltzeko komiki batean maila paretsuan daude testua eta marrazkia. Biak bihurtzen dira narratzaile”**

koren liburu berria irakurri nuen garai horretan, asko gustatu zitzaidan eta horregatik egin diot keinu hori.

**Kolektibotasunaren eta autogestioaren aldarrikapen bat ere egin duzue liburuan.**

Ematen du gauzak egiteko

modu bakarra dagoela. Egoera aldatu nahi duen batek ordea, gauzak beste era batean egiteko modurik ere badagoela uste du. Esperantza hori du.

**“Kontatu nahi genuen istorioa kontatu dugu”**

**Zailena lortu duzue: Joana Maizen pertsonaia gorpuztea. Sendo gorpuztu ere. Segidarik izango al du?**

Printzipioz ez dugu inolako asmorik. Kontatu nahi genuen istorioa kontatu dugu. Baina konturatu gara jendeari asko gustatu zaiola pertsonaia.

**Artisau lana da marrazkilaria-**

**rena. Antzekorik esan zenuen Kabieneko aurkezpen ekitaldian. Nola definituko zenuke zure estiloa?**

**Joseba Larratxe.** Marrazkigintzan inportanteena trazua da. Eta marrazkilari ororen helburua da bere nortasuna duen trazu bat lortzea. Hori lortzen baduzu, edozer marraztu dezakezu eta jendeak zurekin identifikatuko du.

Azkenaldian askotan galdetu diot nire buruari: zer da komiki bat? Eta zertarako da komiki bat? Nire ustez, komiki bat narrazio bat da eta marrazkia erabiltzen dut narrazio tresna bezala. Ez dut uste komikiek liluragarriak izan behar dutenik. Narrazioaren kontra doa, kontaketa emariaren kontra. Horregatik gero eta gehiago gustatzen zaizkit zuribeltzeko komikiak.

**Soilak direlako.**

Agian oso erromantikoa naiz baina zuribeltzeko komiki batean, maila paretsuan daude testua eta marrazkia. Biak bihurtzen dira narratzaile. Paper zuriaren gainekoa, hitza eta irudia, tinta berarekin egin dago.

## Bertako ingurua, inspirazio iturri

**NOAUA! Joana Maiz Euskal Herrian kokatzen da. Baina jokaleku guztiak ez dira errealak, ezta?**

**Joseba Larratxe.** Joanaren bisita-txartelean argi ageri da Bilbon dagoela bere egoitza. Eta Lauren Irunen bizi dela esaten da liburuaren beste momentu batean.


Hasierako eszena Irunen kokatzen da, Lauren bertan bizi delako. Hirugarren bintan agertzen den kokagunearrekin adibidez, oso gustura nago. Frankenstein moduko

bat da. Irungo Bentak auzoa ageri da batetik, baina erdiko partxe berde hori Usurbilgo etxe bat da. San Inazio errotondaren erdian dagoena.

**Irla bat da etxe hori.**

Hori da. Etxe gajo hori errotonda baten barruan geratu da eta komikirako oso ondo zetorkidan.

Kokagune hori errealitatean oinarrituta dago eta horrek beste pisu bat ematen dio irudiari. Bestelako ñabardurak dituelako. Ingurune honen



Hirugarren bintan agertzen den etxeak Usurbilen du inspirazio iturri.

errekreazioarekin oso gustura nago, oso metaforikoa da.

# Artze anaien txalaparta grabazioak disko batean batu dituzte

**A**rtze anaiek 1966 eta 1975 urteen artean grabatutako saioak jaso dituzte Txalaparta izeneko diskoan. “Haien lan osoaren lagin bat da”, Anjel Valdes Elkar diskoetxeko editoreak aditzera eman zuenez. Argitalpen honen bitartez, “errekonoizimendua eta eskertza adierazi nahi zaie Usurbilgo anaiei, egin-dako ekarpen itzelarengatik”.

Bat-bateko saioetako grabazioez gain, diskoak Joxean eta Jesus Artzeren inguruko idatzi bat dakar, Juan Luis Zabala kazetariak egina.

## Txalaparta biziberritu eta mundura zabaldu zuten

“Txalaparta musika tresna bat baino askoz gehiago da”. Juan Luis Zabalaren esanetan, “gure kulturaren berreskuratzearen sinbolo handi bat da”. Ez hori bakarrik. Joxean eta Jesus Artzek Lasarte-Oriako zuaznabartarregatik jasotako “altxor hori” biziberritu eta mundura zabaldu zuten.

2003. urtean Jesus Artzeren biografia idatzi zuen Zabalak eta argitalpen hartan jasotakoa



Txalaparta, Artze anaiak (Elkar) diskoa aurkeztu zuten aurreko astean Donostian. Joxean eta Jesus Artzeren senideei eskerrak eman zizkieten, “argitalpena osatzeko ondare hori guztia gure esku uzteagatik”.

### ARTZE ANAIEN SAIOAK

**Diskotik kanpo geratu diren grabazio ugari plataforman digitaletan ipini dituzte entzungai**

izan du abiapuntu. Diskoarekin batera datorren liburuxkan, Artze anaien ibilbidea laburbil-

du du, kronologia bat osatzea rekin batera.

Disko hau egin beharreko lan bat zela uste du Juan Luis Zabalak. “Seguru asko ez da entretenimendurako disko bat, baina uste dut beharrezko lekukotasun bat dela, eta baliagarria izango dela alderdi askotatik: lekukotasun hori bilduta uzteko, eta edozein entzuleren eskura jartzeko”.

### Diskotik kanpokoak, Interneten

Diskotik kanpo geratu diren grabazio ugari plataforman digitaletan ipini dituzte entzungai: 1968an Herri Gogoia diskoetxearentzat grabatutako diskoa, Baga-biga-higa eta Ikimilikiliklik sentikarietakoak, Milanen grabaturiko diskoaren zati batzuk... Youtube edo Spotify bezalako plataformetan topatuko dituzue grabazio hauek.

## Hitzaldi argigarria euskararen jatorriaz

Nola sortu zen euskara? Zenbat urte ditu euskarak edo bestela esanda, zer adin du? Zergatik eta nola hasi zen erabiltzen? Zergatik ez du generoa? Nolatan ditu 24 aditz trinko? Euskararen sorburura, jatorrira eramango gaitu zuzen zuzenean abenduaren 4an 19:00etan Potxoenean antolatu den “Euskararen Jai Hotsa” hitzaldiak. “Euskararen jatorriaren korapiloso zaharra dela dakigu”,

baina argitzeko bidean egon gaitezke. Hizlari lanetan arituko den Josu Urrejola, euskararen jatorriaren inguruko korapiloso askatzen lanean diharduen aditu talde bateko kidea da.

Gai honi lotutako ikerketa lerro berri bat zabaldu nahi dute, gai honi ikuspuntu berri batetik heldu. Orain arte egin duten lanketa plazaratzeko lehen hitzaldia eskainiko du Usurbilen.

## Gazte Eguna ospatuko da asteburu honetan

### Azaroak 28, osteguna

■ 22:00 Txosna Batzordearen eskutik, “Erronka berriak herriko jaietan” solasaldia.

### Azaroak 29, ostirala

■ 21:30 “Aztarririkarrak: zer da gazte asanbladako kide izate?” solasaldia Potxoenean.

### Azaroak 30, larunbata

■ 11:00 “Usurbilgo gazteria aztarrika! Urteko asmoak finkatzen” Potxoenean.

■ 18:00 Dj ibiltaria, Askatasuna plazatik abiatuta.

■ 19:30 “Usurbildarrak daukate” saioa Askatasuna plazan.

■ 21:00 Gazte afaria: txartelak Aitzagan salgai.

■ 23:30 Kontzertuak Askatasuna plazan: Iñorkiñak, Egurra ta Kitto, Gora Etorri, Dj. Baxur. Oharra: Aztarrikaren kamisetak jantzita eramateko deia.

■ Informazio gehiago: Instagramen; @aztarrika

■ Antolatzailea: Aztarrika.



# Sagardo botilak berrerabiltzeko proiektua

Sagardo botilen berrera-biltzea sustatuko duen “Sagarberritu” proiektu-pilotua aurkeztu zuen azaroaren 19an Astigarragako Sagardoetxean, Europako hondakinaren prebentzio astearren testuinguruan.

Erabilitako sagardo botilak berrerabiltzea da, sagardogintza sektorea indartu eta balio erantsia ematen dion proiektu honen xedea. Sagarberritu martxan dute jada eta horren berri emateko deitu zuten agerraldia Astigarragako Sagardoetxean. Beterri-Buruntzako lehendakari Mari Jose Izagirrek, Euskal Sagardoa Federazioko zuzendari Unai Agirrek, Gipuzkoako Sagardogile Elkartearen zuzendari Olatz Mitxelenak, San Markos Mankomunitateko lehendakari Mikel Pagolak eta Beterri Errotuz laneratze enpresako koordinatzaile Ramon Elorzek parte hartu zuten hitzorduan.

Esperientzia pilotu honekin, sagardo botilak berrerabili nahi dira, “berrerabilpen zerbitzu bideragarri, jasangarri, sozial eta ekonomikoaren bidez”. 2018an egindako azterlan baten arabera, 1.842.553 botila ekoizten dira urtero Beterri-Buruntza eskualdean eta %22a ez dira berrerabiltzen.

Horren aurrean, proiektuak sagardo botilak egiten duten bidea aldarazten du; sagardo kaxetan botila hutsak sartu, kaxak bildu eta Astigarragako



Azaroaren 19an aurkeztu zuten ekimena Astigarragako Sagardoetxean.

## SAGARBERRITU EKIMENA

**Sagardo botilak berrerabili nahi dira, “berrerabilpen zerbitzu bideragarri, jasangarri, sozial eta ekonomikoaren bidez”**

garbiketa enpresa batera garraiatzen dira, gero merkatuzko. Hartara, “ekonomia zirkularra bermatzen du, garapen iraunkorrean oinarritzen da produktuen, zerbitzuen, hondakinaren, materialen, uraren eta energiaren “bizi zikloa ixtea” ahalbideratzen du. Beirazko botila bakoitzaren iraupena luzatu nahi da, balio duen ezer ez botatzeko helburuz”.

### Botilak berrerabiltzeko, Garbiguneak

Egitasmoa Beterri-Errotuz laneratze enpresaren bidez burutzen du, honenbestez, “proiektu honek bere aspektu

soziala du”. Laneratze zailtasunak izan nahiz bazterte arriskuan dauden pertsonen lan munduratzeko erraztuko die.

Proiektu honetara garbiguneak utziz batu diren San Marko Mankomunitatea eta Tolosako Mankomunitatea eskertu dituzte baita, Euskal Sagardoa eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen babesarekin. “Proiektuaren babesle nagusi dira hauek. Beraiek ere bat egiten dute merkatu honetan dagoen berrerabiltzeko behararekin. Ildo horretatik aurrera begira lanean jarraitu beharra baieztatzen da honela”.

Herritarrei ere Sagarberritu proiektuarekin bat egitera deitu diete. “Beterri-Buruntza eskualdeko eta San Markos Mankomunitateko garbiguneetan sagardo kaxa hutsak utzi dira; hortaz, herritarrek bertaratzeko aukera dute, botilen berrerabilpena gauzatzeko”, berri eman zuten iragan asteko agerraldian.

Egitasmoak berrerabilpenaren kontzientzia sustatzeko balioko duela irizten diote. “Beira da egun dagoen material berrerabilgarrienetarikoak; beraz, horrelako proiektuen bidez, hondakinak murriztu, kutsadura gutxitu eta jasangarritasunarekin bat egiten dugu”.

### Berrerabilpen planta

Aurrera begira, sektorea indartuko duela diote. Bideragarritasuna bermatu beharko dela eta ezinbestekotzat jotzen dute berrerabilpenaren inguruko hausnarketa bideratzea. “Gaur egun sagardo botila neurri apalago batean berrerabiltzen da, baina denen artean, administrazioa eta sektorea batera, egin dezakegun lana handia da kopuru handiagoak berrerabili, jasangarri egin eta sektoreko pertsonen berrerabilpena erraztea lortzeko”, diote.

Berrerabilpena errazteko planta bat sortzea ere oso lagungarria litzateke eragileon esanetan. Honekin batera, “aurrera begira, proiektuari beste bultzada bat eman nahi zaio eta botilak sagardo dastatze edo garbiguneetan jasotzearen ordez sistema zentralizatu bateranzko bideari ekin nahi zaio”. Eta proiektua zabaldu nahi lukete eskualdetik kanpo. “Euskal lurraldean kokatuak dauden sagardotegi guztiei edo ia guztiei beraien botilak berrerabiltzera animatu nahi zaie, beraiei zuzeneko eta gertuko zerbitzua eskainiz”.

## Araeta sagardotegia, II. Sagardo Forumean saritua

II. Sagardo Forum-a ospatu berri da Donostian. Nazioarteko Sagardo Lehiaketa honetara herrialde askotako sagardoak aurkeztu dira: Espainia, Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Italia, Herbehereak, Polonia, Eslovakia, Norvegia,

Suedia, Uruguai, Txekia, Luxenburgo eta Amerikako Estatu Batuak.

Sari banaketa astelehen goizean egin zen Donostiako Kursaal jauregian. Best of Show saria Maiti fresh euskal-estatubatuar zaporedun

sagardoarentzat izan zen; Egoitz Zapiain eta Vander Mill sagardotegiko Paul Vander sagardogileen arteko kolaborazioaren emaitza.

Araeta Sagardotegiak ere domina jaso zuen II. Sagardo Forumean.



Kursaalaren ospatu zen foruma.

# Pizgarriz beteriko urte amaiera, Hurbilagoren saltokietan

Bidean datozen urte amaierako ospakizunetarako prestatzen hasiak dira herriko merkataria eta ostalariak. Usurbilen bizitzeaz gain, Usurbilen erosketak egiteko pizgarrri bat baino gehiago izango duzue asteotan. Adi; egiten duzuen erosketa bakoitzeko Hurbilagoren Gabonetako Zozketarako txartela jasoko duzue. Zuen datu pertsonalekin osatu eta denda bereko kaxan utzi. Zozketa, abenduaren 31ko Hurbilago San Silbestre Herri Lasterketa amaieran egingo da, frontoian. Herrian erosteko apustua egiten dutenen artean, bi laguntzako 12 otordu sarituko dira.

Usurbilgo tokiko merkataritza eta ostalaritzaren aldeko lasterketa 17:00etan abiatuko da urteko azken egunean, pilotalekutik. Lasterketarako aurrez saltoki jakinetan izena ematen duten lehen 100 lagunek kami-



Gabonetako Parkea antolatuko du Hurbilagok.

## ABENDUAK 14-15

### Hurbilagok tabernetako giroa ere piztu nahi du urte amaieran, Pintxo jira ekimenaren bidez

seta bana jasoko dute opari. Bai aurrez Hurbilagoren dendetan nahiz lasterketa egunean izena ematen dutenek gainera, San Silbestre amaieran egingo den parte hartzaileen arteko zozke-

tan opari gehiago etxeratzeko aukera izango dute.

Hau guztia gutxi ez balitz, iaz bezala, Gabonetako Parkea antolatuko du Hurbilagok. Iaz abenduko azken asteburuan izan zen; aurten baita, baina larunbatetik igandera izan ordez, ostiraletik larunbatera, abenduaren 27tik 28ra izango da herri erdiguneko plaza ezberdinetan. Herriko merkataritza eta ostalaritza sus-

tatzea xede duenez, egokiago ikusi dute sektoreko eragileek dendak irekiak izango diren egunetan izatea parkea. Jolas ezberdinetaz gozatzeko sarrera beharko da. Asteotan Hurbilagoren dendetan egindako 20 euroko erosketa bakoitzeko puntu bat jasoko dute parkean dibertitu nahi dutenek. 10 puntu batuz gero sarrera doan!

### Pintxo jira

Hurbilago Elkarteak tabernetako giroa ere piztu nahi du urte amaiera honetan, Pintxojira ekimenaren bidez. Abenduaren 14 eta 15eko asteburuan, Aitzagan, Bordatxon, Gurian, Txiribogan eta Txirristan 2,5 euroren truke mokadutxo, edaria eta zigiluekin osatzen joateko txartela eskuratuko duzue. Taberna bakoitzeko zigilu bat. Bost tabernetan pintxo eta edaria dastatu eta bost zigilu eskuratuta, seigarren mokadu eta edaria doan!

## Asier Azpirozek aukerak ditu oraindik

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa azken txanpan murgildu da. Oiarztzungo finalaurrekoan, Beñat Gaztelumendi izan zen garaila eta zuzenean sailkatu da final handirako. Asier Azpiroz laugarren izan zen Oiarztzungo saioan. Beste finalaurreko bat geratzen bada ere, aukerarik badu oraindik Asier Azpirozek.

Oiarztzungo finalaurrekoan, Inaxio Usarralde aginagarrak egin zituen gai jartzaile lanak. Datorren igandean jokatu da azken finalaurrekoa Tolosan. Saio honen ondoren erabakiko da abenduaren 14ko final handia. Donostiako Illunbek jasoko du finala.



Asier Azpirozek laugarren amaitu zuen Oiarztzungo finalaurrekoa. Abenduaren 14ko finalerako txartelak bertsosarrerak.eus atarian dituzue salgai.

### Asier Azpiroz, "txukun"

Amagoia Mujika kazetari usurbildarrak Gara egunkarian egin zuen kronikaren arabera, txukun aritu zen Asier Azpiroz

zubietarra, "saioari bere kolorea emanez. Kartzelakoan Behobiako korrikalari baten azaletik, bidearen erreferentzia aberatsak eginez, ariketa bizia josi zuen".

### Urteko azken

#### Harria Hitz

##### Abenduak 14, larunbata

- 10:00 Usurbilgo frontoian elkartu.
- 10:05 Harria Hitz bisita gidatua herrigunean (Dema Plaza, Udarregiren omeneko eskultura, Zumetaren murala, Mikel Laboa Plaza, Tapiaren murala, Askatasuna Plaza, Sagardoaren Monumentua).
- 11:15 TXTXTX Txokoaldeko Txalaparta Txokora bisita.
- 12:35 Zumeta Arte Estudiora bisita.
- 13:45 Amaiera.
- Informazioa eta erreserbak: 688 818 017 /info@kultour.pro (25 laguntzako lekua gehienez).



Alazne Arruti Bengoetxea

## Aldea Ferreira

Ongi etorri irakurleok. Tarterik izanez gero, zirrikitu honetan momentu batez egunerokotasunaren presa pausatzeko gonbita luzatu nahi nizuke. Ez nuke jakingo esaten urrutiko intxaurrak hamalau ote ziren, baina NOAUak ondoko txokoa eskaini ostean, hementxe aurkituko nauzue, lauburu birakari baten parte, uztaileta bitarteko kontu eta komeriei eragiten Ainhoa Azpirotz, Idoia Torregarai eta Ugaitz Agirrekin batera. Konpainia finagorik nekez izango da, bide batez.

Eta akaso esango duzue, desinformazioaren aro honetan falta genuena haxe zela. Lau konta katilu berriei aho-tsa ematea... Eta nire partetik, ez dizuet kontrakorik esango. Baina ziurtatu nahi nizuke, saiatuko garela zuen neurria egindako ahalik eta bitxikeria pipertsu eta gogoeta sakonek partekatzen. Kafetegian entzundako gertakizunetatik hasi eta, egunero zeharkatzen gaituzten zapalkuntzek osatu dezaketen esparru mugagabe honetan, barrenak zabaltzen.

Eta behin konfiantzaren goxotasunetik abiatuta, eza-gutzen al duzue Dennis, duela pare bat urte Galiziako herrixka despopulatu bat erosi zuen alemaniar katedratikoa? Bada, ezta nik ere, baina bera eta noizbait Aldea Ferreria gi-



“Noizbait Aldea Ferreria gisan izendatu duten Galiziako herrixka ezagutzeko aukera izatea gustatuko litzaidake”.

### ALAZNE ARRUTI BENGOETXEA

**“Hezkuntza integral eta oso bat bermatzeko, urte luzeetan herdoildu den sistema hau birplanteatu beharrean gaude ezinbestean”**

san izendatzen zuten herrixka ezagutzeko aukera izatea gustatuko litzaidake.

Dirudienez, Dennisek Berlingo unibertsitatean Žižek eta beste hainbait pentsalari garai-kideen klaseak jaso zituenean hasi omen zen guztia. Iritzi kritikoaren susperraldiaz gori, hauek ere bere antzera eskola arautu eta elitezko hezkuntzaren komoditatea baztertuz, leku sinple eta merkeago batean euren jakintzak partekatu zitzaizkela ebatzi baitzuen. Oztopo nagusi bat zuen ordea,

hain zuzen, txiro jaio izana mundura.

Hala ere, gizartearen arrakale-tatik barrena abiatzeko adinako pitzaduraz, inbertsio esanguratsu bat egiteko aukera egokitu zizaion bitcoin deritzon moneta birtualean (lasai, nik ere nekez ulertzen dut kriptomoneten kontu hau, baina ez dio axola), eta horri esker lortu omen zuen urte batzuen buruan landa gu-neetako despopulazioak iren-tsitako herrixka erosteko adina kapital batzea. Eta akaso nire gisan, mesfidantza sortuko dizue ekonomia birtualaren izebergaren nolakotasunak, baina ez nuke horretan galdu nahi. Izan ere, diru sari hau ez zuen jate pribatu bat erosi eta jubilatzeke erabili. Azken urteetan amaren alabarik ikusten ez zuen herrixka abandonatu hartan, paradisu intelektual bat sortzeko ametsa betetzeko bai-zik.

Aurretik, 10 urte eman zituen unibertsitatean lanean, baina graduatuen fabrika bateko behargin sentitu zela dio. Orain kontrara, The Foundry izenez bataiatutako etxaldea du aterpe eta arnas. Urte eta erdi eskasean, 100 lagundik gora izan ditu bidaide, eta teiltua konpontzearen edota, norberaren gaitasunen araberrako lanen ordainetan, liburutegi amaiezin batetik elikatzen den irakurle talde, metaforen inguruko tailer, pentsamendu figuratuaren inguruko ikastaro edota sukaldeko entzime-ren eraikuntzan parte hartu eta ostatu hartzeko aukera izan dute, besteak beste.

Komunitate honen sorrerarekin, eskuekin eta bizipenekin lan egitea bultzatu nahi izan du, liburuetan itotako ikasketak baino, bizitzaren esperientziak bideoratz izanik. Eta diot neurekiko, ez ote den horren adibide garbiena, unibertsitate ikasketak amaitu ostean sentitu ohi den itsas labar edo huts erraldoi hori. *Titulirisaren sukarrak* jota, ikasketak izateko pribilegioa ez ote dugun desbalorizatu, geure ezjakintasun eta esperientzia ezaren pisuaz. Hezkuntza integral eta oso bat bermatzeko, urte luzeetan herdoildu den sistema hau birplanteatu beharrean gaude ezinbestean, eta batez ere, eskola eta hezkuntzari, balioa bueltan itzuli beharrean.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Idoia Torregarai Martija

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**ZENDOIA**  
**ENEA** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil

**BORDATXO**  
taberna

**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5



# Herriko hiru emakume kirolari, Gipuzkoako Kirol galarako hautagaien artean

**N**ahia Zudaire Borrezo Zubietako igerilaria, Maria Fernanda Carazas Huyanca judoka eta Esther Arrojeria kide duen Bera Bera nesken eskubaloi taldea, Gipuzkoako Foru Aldundiak abenduaren 4an 19:00etan Donostiako Tabakaleran antolatuko kirolgalan sarituak izateko hautagaien artean daude. Haien alde bozka eman zitekeen hilaren 25era arte. Gipuzkoako kirolariek eta lurralde honetako arloko pertsonen kirolarien alde etenik gabe eginiko lana sarituko du Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamenduak.


Hitzordu honetan hain zuzen, bi sari banatuko dituzte; epaimahai tekniko batek erabakitako Kirol Merezimenduaren saria eta Gipuzkoarren Kirola Herritarren Saria. Herritarrek erabaki dute bigarren sari hau, aipatu bozketekin.

## Hiru herritar

Sariketarako hautagaien artean herritarrek ditugu. Batetik, Na-



Esther Arrojeria, Nahia Zudaire eta Mafer Carazas daude hautagaien artean.



## HIRU HAUTAGAIK

**Nahia Zudaire igerilaria,  
Esther Arrojeria  
eskubaloi jokalaria  
eta Maria Fernanda  
Carazas judoka**

hia Zudaire Borrezo zubieta-rra. Igeriketa egokituari aritua, Foru Aldundiko atariak nabarmentzen duenez, "S8, SB7 eta SM8 bezala sailkatuta dago. Orain arte Euskal Herriko eta Espainiako txapelketak lehiatu

ditu, eta profesional mailan lehen pausoak ematen hasi da".

Bera Bera nesken eskubaloi jokalariek ere jaso dezakete herritarren saria; tartean, Esther Arrojeria kalezartarrak. Gogoan izan, iazko denboraldira arte Esther Berasategi herritarra ere lehiakide izan zuela taldeak. Biek ala biek eman zieten hasiera joandako Usurbilgo jaiei.

Judoan, Usurbilgo klubean gaztea izanagatik sari mordoa irabazitako jokalaria dugu; Maria Fernanda Carazas Huayan-

ca. Gipuzkoako Foru Aldundiko web orrialdeak ondoko sari zerrenda irabazi duela gogorazten digu:

- Espainiako Senior Txapelketako brontzezko domina.
- Espainiako Junior Txapelketako urrezko domina.
- Junior mailako Espainiako Kopako urrezko domina, Valentzia.
- Espainiako Junior mailako Espainiako Kopako urrezko domina, Extremadura.
- Espainiako Ranking Nazionalerako lehen sailkatua.

## San Tomas Azokako lehiaketetan izen emateko garaia

Abenduaren 15erako antolatzen ari garen azokaren ezinbesteko osagaiak ditugu, sagardo eta babarrun txapelketak. Ekoizleok adi, abenduaren 2an irekiko dugu izen ematea.

### Izen ematea

Abenduaren 2tik 12ra, NOAUA!ko egoitzan. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 10:00-14:00/16:00-19:00. Informazio gehiago: 943360321.

### Sagardo lehiaketa

Partaide bakoitzak 8 botila

ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5 euro ordainduko zaio.

Oharra: sagardotegiek ezingo dute parte hartu.

### Babarrun lehiaketa

Partaide bakoitzak kilo bat babarrun ekarri behar du eta 12 euro ordainduko zaio.

### Kontuan hartu beharrekoak:

- Itxura: osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...
- Kolorea: zenbat eta beltzagoa orduan eta hobeagoa.

■ Berdintasuna: tamainaz, kolorez... elkarren berdinez izatea.

■ Dizdira: berezko dizdira beste edozein produkturakin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada lehiaketatik kanpo geratuko da.

■ Garbitasuna: partikula arrotzik ez izatea.

### Sagardo zein babarrun txapelketen sariak

1. saria 150 euro eta txapela.
2. saria: 90 euro eta kopa.
3. saria: 50 euro.

## Udarregi Ikastolaren lan eskaintza

DBHn musika arlorako ordezkapena betetzeko irakaslea behar da Udarregin. Egitekoak: 4 ordu antzerkian, 10 ordu musika DBHn eta 2 ordu musika Haur Eskolan. Goi mailako musika titulua, EGA edo baliokidea eta DBH-n Hezkuntza Gaitasuneko Masterra izatea eskatzen da. Interesdunek kurrikuluma bidali usurbil@ikastola.eus helbidera edo deitu hona: 943 361 216. Hautagaiei elkarriketa bana egingo zaie.

# Abenduaren 10etik aurrera, Mendi Astea

**B**i ekintza antolatuta ditu Andatza M.K.K.-k abenduko bigarren asterako:

## Abenduak 10, asteartea

■ 19:00 GPS eta orientazio ikastaroa DYA-k Munalurran duen egoitzan. Doan.

■ Izen ematea: abenduaren 6ra arte andatzamkk@gmail.com helbidean.

■ Oharrak:

-Bakoitzak bere GPSa ekar dezake.

-Plaza kopuru mugatua.

## Abenduak 15, igandea

■ 8:00 Mendi irteera Andatza barrena, Oiardo Kiroldetigitik abiatuta.

■ Ibilbidea: 20 kilometro (Uxue Trail luzea).

■ Ondoren, bazkaria Patri jatetxean.



Abenduaren 10erako GPS eta orientazio ikastaroa antolatuta dute.

■ Izen ematea: abenduaren 11ra arte andatzamkk@gmail.com helbidean.

■ Oharrak:

-Plaza kopuru mugatua.

-Andatza M.K.K.-k antolatutako txangoetan parte hartzeko ezinbestekoa da mendiko federatua izan eta aseguru

txartela indarrean edukitzea. Federatu gabe dagoenari tramitea egiteko aukera eskaintzen dio mendizale taldeak.

**Informazio gehiago:**

andatza.com

andatza@hotmail.com

Antolatzailea: Andatza M.K.K.

## Miriam Arrillaga, Emakumeen Master Cup Txapelketan

**L**au eta erdiko Laboral Kutxa Emakume Master Cup txapelketa azken txanpan sartu da. Pilota mistoko final-laurdenean, Miriam Arrillagak 18-13 irabazi zion Amaia Aldairi. Emaizta honi esker, finalerdirako txartela eskuratu du Arrillagak.

Igande honetan jokatuko da finalerdia, eguerdiko 12:00etatik aurrera Galdakaon. ETB1 kateak zuzenean eskainiko du partida.



Miriam Arrillaga Leire Garai gasteiztarraren aurka arituko da igandean Galdakaon. Irabazten badu, Pilota mistoko finalera sailkatuko da.

## Futbol partidak

### Haranen

**Azaroak 30, larunbata**

■ 9:30 Alebin mutilak:

Udarregi 6B-Urnieta 6B

Udarregi 5A-Udarregi 6A

■ 10:30 Infantil neskak:

Usurbil F.T.-Intxaurdi KE "A"

■ 12:00 Kadete neskak:

Usurbil F.T.-Danena KE

■ 15:30 Erregionalak:

Usurbil F.T.-Lazkao KE

■ 17:45 Kadete mutilak:

Usurbil F.T.-Urnieta K.E. "B"

## Eskubaloitxak

### Oiardon

**Azaroak 30, larunbata**

Eskola Kirola

■ 9:15 Alebin neskak:

Udarregi 5B-Udarregi 5A

■ 10:15 Alebin neskak:

Udarregi 6A-Urnieta 6A

■ 10:15 Alebin neskak:

Udarregi 6D-Urnieta 6B

■ 11:30 Infantil mutilak:

Udarregi A Usurbil

-Bideosoa Bidasoa Irun A

Usurbil K.E.

■ 13:00 Senior mutilak,

Gipuzkoako Txapelketa:

Usurbil K.E.

-Tolosa C.F. Eskubaloia B

■ 16:00 Senior neskak,

Euskadiko Txapelketa:

Urbil-Usurbil K.E.

-Petronor Muskiz

■ 17:45 Jubenil mutilak,

Euskal Liga (Euskadiko

Txapelketa):

Usurbil K.E.-Deca Elgoibar

■ 19:30 Kadete mutilak, Euskal

Liga (Euskadiko Txapelketa):

Usurbil K.E.-Urkunde Elgoibar

**Abenduak 1, igandea**

■ 9:30 Alebin errendimendua mutilak:

Usurbil K.E.-Bera Bera

*Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170  
USURBIL

ARRANDEGIA

## PELLO

ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI

650 31 31 91 USURBIL

*Patri*  
Patrienea  
jatetxea

· bazkariak EGUNERO  
· afariak. ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m<sup>2</sup> berriua, 2 gela, komuna, sukaldia, jangela, egongela, harriera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m<sup>2</sup> garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukaldia handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldia, egongela, komuna, kalefakzioa. Igogailurik gabe. Dena berriua. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berriua. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berriua berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukaldia-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m<sup>2</sup> eta garajeak 50m<sup>2</sup>. Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldia, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Ganbara prezio berruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

## Alokairuan

Etxe baten bila gabiltza alokairuan edo salmentan Usurbilen. 688 714 317. Deitu asteazken zehar 16:30etik aurrera edo asteburuetan.

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatuzko lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. T616 027 636

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsua eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Ar-

duratsua eta garbia. 612 487 017.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

Yamaha Virago 250 XV motorra salgai eta osagarriak opari. 990 euro. 617701173.

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatik kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m<sup>2</sup>-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramuntu kalean. 23 m<sup>2</sup>, ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali

CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiriboga tabernan asteburutarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainkategi erretegiaren. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakokudeatzailea behar da Buruntaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesio-naltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldia@udarregi.eus

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo

umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Emakume Usurbildar bat naiz eta umeak zaintzen lan egingo nuke. Esperientziarekin. 616 273 785

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat lasai 688637679 zenbakira, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsalde zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta



## Zorionak Haitz!

Jarraitu beti bezain alai eta jator! Besarkada handi bat etxekoan partez.



## Zorionak Peru!

Azaroaren 27an zure urtebetetze eguna izan zen. Ondo pasako zenuela espero dugu. Eñaut eta zure familiaren partez. Segi horrela!!!

## Heriotzak

## Olivia Ibaguren Basurto

71 urterekin hil zen azaroaren 21ean Usurbilen





esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketa eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. Esperientziaduna. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketara lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat etxeko nahiz zaintza lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00-17:00 bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Tel 602 069 147

Lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta lanegilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketara, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarekin

persona helduak zaintzen. Ospitaleetan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak

edo umeak zaintzen. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Urtariletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketara. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen.

Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. 631 856 814.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Segituan lanean hasiko nintzateke. 637106649.

#### BESTELAKOAK

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartearen bazkide berriak sartzeko plaza libreak daude. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkartearen bazkide bat naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurrikoa da eta berri berria dago. 650 027 123.

Urtea zehar ingeleseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonesezko arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

3 metroko tolo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestatuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Atalluko Garbigunean. doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 28** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Ostirala 29** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Larunbata 30** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 01** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Astelehena 02** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loidola 9. Lasarte

**Asteartea 03** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteazkena 04** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

## Azaroak 28 - Abenduak 8

**Osteguna 05** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Ostirala 06** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Larunbata 07** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Igandea 08** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ  
CASTILLA-LARBURU  
URBIETA KALEA, 7 HERNANI  
943552941

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda azaroa

## 29 ostirala

- **Zinea eta palomitak.** 17:00etan Bihurrin.
- **Maskarada,** aurkezpena. 19:30ean Sutegin.
- **Euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea.** 20:00etan Mikel Laboa plazan.
- **"Aztarrak: zer da gazte asanbladako kide izatea?"**, 21:30ean Potxoenean.

## 30 larunbata

- **Gazte Eguna.** Ikus 14. or.
- **Kantu-jira.** 12:30ean Mikel Laboa plazan.
- **Euskararen Eguneko ekintzak.** Desio eta bizipenen bilketa frontoian, goiz partean. 18:00 Demode Quartet Aginagako Eliza Zaharrear.

## 01 igandea

- **Mikel Laboa gogoan.** Egunean zehar.
- **Pirritx eta Porrotx** 11:30ean Oiardon.
- **"Zoaz bake santuan"** antzezlan 18:00etan Aginagako Eliza Zaharrear.
- **"Maya erlea, ezti jokoak".** Zinea euskaraz. 17:00etan Sutegin.

## "Zoaz pake santuan" antzezlan, igandean Aginagako Eliza Zaharrear

Euskararen Eguna dela eta, *Zoaz pake santuan* antzerki saioa antolatatu dute Aginagan. Abenduaren 1ean igandearekin, 18:00etan Aginagako Eliza Zaharrear.

- **Aktoreak:** Mikel Laskurain eta Ane Gabarain.
- **Sarrera:** 5 euro. Aldez aurretik Arrate Tabernan eros daitezke.
- **Informazio gehiago** hurrengo emailen: [gurasoelkartea@aginaga.eskolatxikiak.eus](mailto:gurasoelkartea@aginaga.eskolatxikiak.eus)



Euskararen Egunaren harira antolatu dute emanaldia.

## Oinordekotzari buruzko hitzaldia Potxoenean

Abenduaren 2an 18:00etan Potxoenean, Euskaltzaindiako lehendakari baina notarioa eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea ere baden Andres Urrutiarekin. "Baserrietan, ondasunetan, gaur egun oinordetzarako zein aukera dauden aztertu, eta historian zehar auzi honek izan duen bilakaera azaltzea litzateke" Alkartasuna Kooperatibak antolaturiko ordu erdiko hitzaldiaren helburua. Gero, bertan sortzen diren galdera eta zalantzei erantzungo die Urrutiak.

## KzGunera datozen ikastaroak

Azaroaren 29ra arte, 16:00-20:00 artean zabalduko dute. Abenduaren 2tik aurrera 9:00-13:00 artean.

- **Abenduak 2-11,** 9:00-11:00 "Eman lehenengo pausoak argazki ukituan GIMP-ekin".
  - **Abenduak 12-13,** 9:00-11:00 "Atera argazkiak une bakoitzerako zure Smartphonearekin".
- Informazio gehiago: 943 023 684 / [tutor.usurbil@kzgunea.net](mailto:tutor.usurbil@kzgunea.net)

## Datozenak

### Zuberoako otarrak eskatzeko azken egunak

Abenduaren 8ra arte bidera ditzakezue eskaerak NOAUA! bidez edo [xiberokootarrakusurbil@gmail.com](mailto:xiberokootarrakusurbil@gmail.com) helbidera idatzita. Eskatutako otarrak hilaren 15eko San Tomas Azokan edo hilaren 16tik 20ra NOAUA! K.E.-ren egoitzan jaso ahalko dira. Ordainketak orduan egin beharko dira. Bi saski daude aukeran: Irati izenekoa (52 euro) edo Ahüzki izenekoa (40 euro). Informazio gehiago: [ikaskoli.eus](http://ikaskoli.eus).

### Errigoraren saskiak

Nafarroa hegoaldeko tokiko produktuen otarrak eskatu dituzuenok abenduaren 9ko astean helduko zaizkigu NOAUA!ra. Jaso ahala jarriko gara zuekin hartuemanetan. Informazio gehiagorako: [errigora.eus](http://errigora.eus)

### 14. gaztelaniazko literatura topaketak

Abenduaren 4an 19:00etan Sutegi udal liburutegian, Ana Merino usurbildarrak gidatua. Luis Sepulvedaren "Un viejo que leía novelas de amor" liburuen inguruko solasaldia. Liburuaren aleak aurrez eskuratu ahalko dituzue liburutegian.

 **ANORGA TXIBI S.L.**  
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak · beira bikoitza
- segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ETXETRESNEN   
**KONPONKETAK**  
eta **SALMENTA**

MARKA GUZTIAK  
azkar, prezio onean  
20 URTEKO ESPERIENTZIA

 645417665  
XABIER Usurbil

  
Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**



# USURBILGO denda txikien

# atrakzio parke

## ERRALDOIA!

### 2019

### ABENDUAK

# 27-28



USURBILEN  
zure erosketak egiteak **SARIA** du:  
egun osoko sarrera **DOAN!**

20€<sup>ko</sup>  
erosketaren truke  
**puntu1**  
jasoko duzu

10 puntu  
lortuz gero  
egun osoko  
**sarrera**  
zuzetzat!

**PUNTUAK**  
**ESKURATZEKO:**  
azaroaren 18tik  
abenduarien 26ra  
Usurbilgo komertzioetan



Usurbilgo Udala



hurbilag

Usurbilgo Merkataritza eta Ostalaritza Ekarlea





# Euskarari bai, Urbilen.



#UrbilKonpromisoa



[urbil.es](http://urbil.es)